

AZTERKETAK | 58

2026ko apirila

Euskara auzitan

Oldarraldi judizial eta
sindikala baten azalpena

Aurkibidea

0. HITZAURREA: Euskaldunok utz diezaigun Cassius Clay izateari	1
1. SARRERA.....	3
2. LEGEEN ARKEOLOGIA.....	4
EAE: Elebitasun unibertsalerako ibilbide progresiboari traizioa.....	4
Nafarroan gaztelaniaren nagusitasuna legez blindatzeko egitura	6
Iparraldean ere egoera oso larrian	8
3. BEHIN-BEHINEKOTASUNAREN ARAZOA ADMINISTRAZIOETAN	9
Iruzurra nagusi administrazioetan.....	9
4. KONTOLIDAZIORAKO MARKO PREKARIO BAT	10
5. ADMINISTRAZIOAK EUSKALDUNTZEKO PROPOSAMENAK.....	11
ELAren, LABen eta Kontseiluaren proposamena	11
CCOOen EAEko proposamenaren irakurketa kritikoa.....	11
Nafarroan UGTren eta CCOOren proposamenak.....	13
Kontsolidazioa eta euskalduntzea	13
6. OLDARRALDI JUDIZIALAREN AZALPEN JURIDIKO-POLITIKOA	15
Derrigortasun-indizea muga gisa ezartzen duten epaiak	15
Administrazioen azpikontratetan hizkuntza klausulak debekatzea	20
Legeak eta arauak bertan behera uzten dituzten epaiak.....	21
7. OLDARRALDI JURIDIKOA MODU ANTOLATUAN ERAGIN DA	24
Apartheid edo bazterketa sindikala?	25
8. ETA ORAIN ZER?.....	26
Status quo-a irauli	26
Oldarraldi antolatuari esnatze antolatua.....	27

0. HITZAURREA: Euskaldunok utz diezaiogun Cassius Clay izateari

Cassius Clayk gurasoek jarritako izena zuen Cassius. Clay iragan esklabista batek inposatutako abizena. Malcolm X-k, atzean uzteko, bere arbasoei nagusi esklabistek inposatutako abizenari uko egin zion. Cassius Clayk Muhammad Ali bilakatzea erabaki zuen. Abizena aldatu zuen etorkizuneko borroka irudikatzeke, zapalkuntzaz beteriko iragana ez zegoelako aldatzerik, baina ez zuelako iragan horrek etorkizuna mugatzerik nahi. Gizakiek ezin baitute beren historia nahi bezala egin, berek aukeratutako baldintzetan, baizik lehendik ere badauden eta iraganetik zuzenean heldu direnetan. Hildakoen belaunaldien tradizioa mamu bat bezain astuna da bizirik daudenen garunean. Abizen aldaketa zapalkuntzaz beteriko iragan hori atzean uzteko modua izan zen.

Indarkeriaz beteriko hizkuntza zapalkuntzaren iraganak, orainaldian ere jasaten dugun bazterketa normalizatzea dakar. Esaterako, Hego Euskal Herrian normalizatuta daukagu gizarte guztiak gaztelaniz jakitea. Baina gaztelaniaren ezagutza ez da fenomeno meteorologiko baten gisan modu naturalean hedatu, inposatu egin da, eta egun ere inposatzen digute. Euskararen debekuaren lehen aztarnak Errioxako Ojacastrora garamatzate 1239an eta Huescara 1349an. Bietan euskararen erabilera debekatu egin nahi izan zuten, bietan, Errioxan zein Huescan, euskara hitz egiten baitzen.

Euskal hiztunekiko mespretxuak ekarri zuen euskal sindikalismoaren lehen mobilizazioa. 1911n, ELA sortu eta hilabete gutxira, sindikatuak Bilboko udaletxe parean mobilizazio bat antolatu zuen zinegotzi sozialista batek, PSOEkoak esan nahi baita, hitzez hitz hurrengo defendatu zuelako: "me hallo convencido de que los hijos de este País son inferiores en aptitud y mentalidad a los del resto de las provincias de España"... Bilboko Udalean langile euskaldunak izatea debekatu nahi zuen. Urte hartan aldizkari sozialista batek defendatu zuen: "para el reforzamiento de los lazos entre el País Vasco y España el euskera debe obligatoriamente desaparecer. Para los socialistas españoles la lengua vasca no tiene lugar en la sociedad moderna".

Iraganeko mamu haiek eta ondorengoek ekarri dute euskararen minorizazioa. Minorizazioa txikitze prozesua da, ez txikia izatea. Gauza txikiak ederrak izan daitezke, handiak oso zatarrak izan daitezkeen gisan, baina indarrez txikitzea hori bada itsusia. Gaztelaren inposaketa eta euskararen bazterketa ez zen frankismoarekin bukatu. Horrela, 1991rako euskaldun elebakarren kopurua ia %1ekoa zen EAEn, eta 2021ean apenas %0,2koa eta ia denak pertsona oso nagusiak. Gaztelaniaren ezagutza oraindik ere inposatu egiten baita, legez, Konstituzioaren 3. artikulutik hasita, Euskal Herrian euskaraz soilik bititza ezinezkoa bihurtu duten arte.

Euskara eta gaztelera edo euskara eta frantsesa dakizkienak bi hizkuntzatan komunikatzeko aukera eskaintzen du, hizkuntza bakarra ezagutzen duenak ezinbestean komunikazioan hizkuntza hori inposatzen du. Horrela hedatu da gaztelania. Egun bizitzak eta hizkuntzen erabilerak merkantilizatzen dituen gizarte kapitalista honek zapalkuntza fenomeno berriak ekarri ditu, inposatu dizkiguten estatu-hizkuntzen mesedetan.

Inposaketak ekarri du euskal herritar askori euskara ebatsi izana: ez dakite euskaraz ez zaielako euskaraz jabetzeko aukerarik eskaini. Norbere hizkuntza inposatzearen pribilegioa (gaztelaniz komunikazioa ezartzea) batzuetan ez da nahita egindakoa edo bilatua, baina zenbait eragilek (alderdi, sindikatu, enpresa eta bestelako) horixe bilatzen dute: gaztelera inposatzea, hain zuzen. Inposaketa honi aurre egin behar diogu eta ez normalizat eman. Euskal Herrira etorritako euskal herritar berriei ere euskarara heltzeko aukera ukatzen ari zaizkie.

Euskal herritar orok erabaki behar du ea Cassius Clay izan nahi duen, edo Muhammad Ali moduan iraganari eskuin krotxet bat eman nahi dion eta horren arabera etorkizun berri bat irudikatu. Euskaltzaletasuna justiziaren eta berdintasunaren aldeko apustua da, historian zehar pairatutako zapalkuntzari erantzuna, baita egun erdaldun elebakarrak diren pertsonentzat ere. Eta euskaltza-

letasuna herritar guztien eskubide zibilak defendatzea ere bada, gure lurraldean gure hizkuntzan bizitzeko eskubidea defendatzea. Etorkizun horretan euskaldun orok euskaraz bizitzeko eta lan egiteko eskubidea behar luke. Horretarako baldintzak sortuko ditugu (inor bidean utzi gabe) ala iraganeko mamuen arabera gaztelaniaren nagusitasuna betirako onartu beharko dugu gure bizitzako esparru guztietan?

Pello Igeregi Santamaria. [ELA sindikatuko Euskara Arduraduna](#)

1. SARRERA

Euskaldun gehienok ez dugu normaltasunez euskaraz bizitzerik edo lan egiterik. Euskaraz bizitzeko aukerak ez ditugu soilik administrazioetan bermatu behar, baina administrazioetan ere ez badago harremana euskaraz bermatzerik, edo ez badago administrazioen funtzionamendua euskaraz ere normaltasunez bermatzerik, nola izango da horretarako aukera beste edozein esparrutan? Are, azken azterketa soziolinguistikoek erakutsi dute euskaldunontzat hil ala bizikoak direla lurralde arnaguneak edota arnagune funtzionalak, euskara hizkuntza bizia izango bada. Administrazioak ere ezin badira arnagune funtzionalak izan, euskaldunok ez dugu bestelako esparru funtzioaletan euskaraz bizitzerik izango, edo oso nekez.

Etorkizuna egungo errealitatek abiatuta eraiki behar dugu ezinbestean. Hizkuntzen errealitatea soziolinguistikoa da. Errealitate soziolinguistikoa bi zentzutan erabili daiteke. Irauli behar den eta oinarri den egungo praktika gisa. Edota aldagetak mugatzeko aitzakia gisa. Euskaltzaleen eta euskarafoboaren arteko muga bi esanahi horien arteko muga aurkitzen da.

Errealitatea aldatu nahi dugunok etorkizun bat bilatzen dugu, euskaldunok (egun erdaldun elebarkarrek bezala) eguneroko bizitzako funtzio guztiak gure hizkuntzan erabateko normaltasunez bete ditzakegun etorkizuna desiratzen dugu. Egungo errealitateak diosku etorkizun horretara iristeko neurriak modu progresiboan hartu beharko ditugula. Adinaren arabera, zenbait langilek euskalduntzerik izango ez dutela onartu beharko dugu. Beste hainbatek euskalduntzeko laguntza bereziak behar izango dituzte. Eta etorkizunean berriz ere erdaldun elebarkarrik ez egoteko edota erraz euskalduntzeko baldintzak sortu beharko dira, esaterako hezkuntza sistema eraldatuta, euskarazko hedabideak ugalduta eta hobetuta, etab. Anbizioz baina malgutasunez eta norbanakoekiko justiziaz jokatu beharko dugu, beti ere eskubideen berdintasuna dakarren etorkizun horretara helduko bagara.

Beste eragile batzuek ez dute ontzat eman nahi errealitate soziolinguistiko hau aldatu beharra dagoenik baina. Euren interpretazioaren eta interesen arabera, euskaldunok onartu behar dugu erdaldun elebarkarrek beti izango dutela beren hizkuntza inposatzeko eskubidea, eta euskara erabiltzea borondatezkoa eta erdaldunei ezer exijitu gabe izan beharko duela.

Euskararen aurkako oldarraldi judizial, politiko eta sindikala talka honetan kokatu behar dugu. Epeak negoziatu daitezke. Hartu beharreko neurriak negoziatu daitezke. Hizkuntz eskubideak ez dira negoziatzen. Hizkuntzen eta hizkuntz eskubideen ukazioa ezin da onartu.

Dokumentu honek administrazioetan azken urteetan ematen ari den eraso aztertzen du. Dokumentua ELAk egin du, ez da objektiboa eta ez du objektibo izateko bokaziorik ere. Gure sindikatuaren iritzia araberakoa da. Hala ere, dokumentua teknikoki egia da.

Zeren oldarraldia egon badago. Edo, behintzat, hedabide, alderdi, patronal eta sindikatu jakinen erasoarekin batera jurisprudentzia aldaketa atzerakoi bat pairatzen ari gara eta jurisprudentzia berri hori modu antolatuan probokatua izan da eragile horien aldetik. Gaztelaniaren nagusitasuna inposatzen jarraitu nahi duten eragile politiko, patronal, sindikatu eta komunikabideek iraganeko konpromisoei uko egin diete EAEn (Nafarroan hori ere ez zen lortu, eta are gutxiago Iparraldean). XX. mendeko 80ko hamarkadako ustezko kontsentsua elebitasun progresiboan oinarritzen baitzen, eta orain gazteleraren inposaketaz gain, gazteleradunen elebakartasunerako eskubidea defendatzen dute. Oldarraldia, finean, hizkuntz supremazismoaren ondorio juridikoa besterik ez baita.

Azterketa honen helburua da euskaltzale orok ezagutu dezan oldarraldiaren nolakotasuna, oldarraldia ezagututa horren arabera herri aktibazioa bila dezagun eta instituzioetan norabide egokian eragin dezagun, herritar guztien hizkuntz eskubideak parekatzea helburu. Inor bidean utzi gabe, baina inori egungo errealitate soziolinguistiko inposatua betikotzeko beto eskubiderik onartu gabe.

2. LEGEEN ARKEOLOGIA

Bai EAEko bai Nafarroako legedia ulertzeko eta epaitegien jurisprudentzia interpretatzeko, ezin bestekoa da gaztelania ez diren hizkuntzek Espainiako Konstituzioan jasotzen duten bazterketa gogora ekartzea. Izan ere, Konstituzioaren 3.1 artikulua hitzez hitz hurrengoa dio:

“3. artikulua.

1. *Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. **Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.***

2. *Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutuei dagozkien eran.*

3. *Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.”*

Espainiar guztiek gaztelania jakiteko obligazioa dute. Beste hizkuntza batzuk ere ofizialak izateko aukera dago, baina soilik gaztelania ezagutu behar da derrigorrez. Nagusitasun juridiko honek eragiten du zapaldutako nazioetako beste hizkuntzak gaztelaniaren makulu izatea, are gehiago ondoren aztertuko ditugun epaitegien interpretazio atzerakoia kontuan izanik.

EAE: Elebitasun unibertsalerako ibilbide progresiboari traizioa

Gernikako Estatutuak jaso zuen: “*Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea*”.

Ikusi moduan, euskara ofiziala da, baina gaztelania “ofizialagoa”, gaztelania ezagutzeko obligazioa ezartzen baitu. Hots, gaztelania hizkuntza normalizatua da, mendetako inposaketaren ondorioz herritar denek ezagutzen dutelako, eta euskaldunak bigarren mailako herritarrak gara, soilik euskara ezagutzeko eskubideari eutsi dioten herritarren artean izango delako erabilgarri, baldintzek eta testuinguruak ahalbidetzen dutenean.

1982an Euskararen normalizaziorako legea onartu zen, 10/1982 Legea hain zuzen. Izenak berak aditzera ematen du errealitate soziolinguistikoa aldatzeko helburua zuela. Legea ez da orduetik aldatu eta bere 5. artikuluan jasotzen du euskal herritar orok duela eskubidea administrazioekin bere hautazko hizkuntzan aritzeko.

Baina 44 urte geroago soilik euskaldunek dauzkagu arazoak administrazioekin euskaraz aritzeko. Euskaraz aritu behar dugunean geure buruak nabarmendu beharra dugu, sarri zerbitzu berezia eskatuz oso egoera zaurgarrietan, eta, hala ere, askotan ez dugu lortzen euskarazko arreta jasotzerik.

Akordio hau onartu bezain pronto Espainiako Gobernuak auzitan jarri eta Auzitegi Konstituzionalan errekurritu zuen, administrazioetan herritarren arteko jardunean herritar euskaldunek administrazio-egintzak euskaraz egiteko aukera ematen zuen artikulua deuseztatzeko. Ondorioz, Auzitegi Konstituzionalaren 82/1986 epaiak jaso zuen gaztelania komunikazio guztietan derrigorrez egon behar dela, Konstituzioaren arabera gaztelaniaren ezagutza soilik inposatu daitekeelako. Epai horrek bi ikasgai ekarri zituen: batetik, gaztelaniaren estatus juridikoa nagusikerian oinarritzen zela eta, bestetik, alderdi politikoen arteko akordio zabalena ere Espainiako epaitegien menpe geratuko zela.

Era berean, Euskararen Legearen 14. artikulua jasotzen du botere publikoek administrazioetako langileen euskalduntze progresiboa lortzeko neurriak hartu behar dituztela. Orduko akordioa ulertzeko bi elementu garrantzitsuenak hauek dira, euskalduntzea eta progresibotasuna.

Euskalduntzea lege honen eta Funtzio Publikoaren Legea garatzeko dekretuen baitan ulertu behar da. 250/1986 Dekretuak euskarazko hizkuntz eskakizunak ezartzeko irizpideak arautu zituen lehenik, ondoren administrazio bakoitzak autonomiaz interpretatu zezan eta euskalduntzea modu progresiboan garatu zedin.

Ondoren, 224/1989 Dekretuak berariaz jaso zuen administrazio bakoitzak bere plangintzaldian adostutako hizkuntz eskakizunak ezarri beharko zituela derrigorrez eta indize hori gainditzeko aukera izango zela Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politiketarako Zuzendaritza Orokorraren aldeko txostena izanik, Dekretuaren 7. artikulua zehazten zuen bezala. Hau gogora ekartzea oso garrantzitsua da, egungo oldarraldi judizialaren muina hau baita: derrigortasun-indizea gehieneko muga bat dela epaileon ustez. Bada, 1989ko lehen dekretuan beren-beregi jaso zen indize hori gainditu zitekeela. Erabateko euskalduntzea modu progresiboan lortzea zuelako logika gisa bai Euskararen Legeak, bai 1989ko dekretu hark ere.

Dekretuak erakusten du, beraz, derrigortasun-indizea administrazioen elebitasun orokorra modu progresiboan lortzeko gutxieneko gisa sortu zela. Ez da harritzekoa, izan ere, 80ko hamarkada hasieran administrazioak diktaduran faxistan zehar oinordetzan jasotako funtzionarioek osatzen zuten eta administrazioen euskalduntzea eragin behar zen. Hala, modu progresiboan administrazioen erabateko elebitasuna lortzea adostu zuten.

Akordio hori hezkuntzan emandako akordio baten baitan ere ulertu beharra dago. Hau da, hezkuntza sistemak gazteak modu progresiboan euskaldundu behar zituen, baita A ereduko ikasleak ere. Eta ikasle horiek heldu bilakatzean administrazioak euskaldunduko zituzten. Arazoa izan da A ereduak ez duela euskaldundu. Are, egun administrazioetako langileak erabat elebidunak izan daitezkeen arazoak ezartzen dituzten eragile berberak dira hezkuntzan hizkuntz ereduak mantentzea inposatu dutenak eta etorkizunean ere euskararik jakingo ez duten gazteak heztea ontzat eman dutenak. Soilik euskaldun elebakarrak desagertu baitira epe honetan eta euskaldun oro gaur egun gazteleraduna (edo frantsesduna Iparraldean) ere bada eta.

86/1997 Dekretuak ordezkatu zuen 1989ko araudia. Bere 11. artikuluan gaur egun ere indarrean dagoen derrigortasun-indizea definitu zuen. Dekretu honek ez zuen zehaztu indize hori gutxienekoa zenik, baina aurreko dekretuaren idazketak aditzera eman zuen akordio politikoak erabateko euskalduntze bidean ezarritako gutxieneko indizea zela. Epaitegiek ere horrela interpretatu dute orain gutxira arte.

2024an 1997ko dekretua berritu zuen Eusko Jaurlaritzak. 19/2024 Dekretu berriak, jadanik oldarraldi judiziala indarrean egon arren, politikariek epaiei muzin egin eta 1997ko dekretuaren idazketa hitzez hitz errepikatzea erabaki zuten. Eusko Jaurlaritzak gatazka judizialaren aurrean ostrukarena egin nahi izan zuen eztabaida politikorik ez eragiteko:

“25. artikulua. – Derrigortasun-indizea.

1. – Derrigortasun-indizeak adierazten du entitate bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izan behar duten lanpostuen kopuru osoaren ehunekoa.

2. – Honela kalkulatu da derrigortasun-indizea: EUSKALDUNAK + (IA EUSKALDUNAK/2) Horretarako, kontuan hartuko da EAEko biztanleen euskararen jakite-mailari buruzko informazioa, Biztanleria eta Etxebizitza Zentsu edo Estatistikaren azken datuetan oinarrituta, eta, hala badagokio, plangintzaldi bakoitzaren hasieran indarrean dauden balidazio-taula orokorretan.

3 – Euskal sektore publikoko entitate bakoitzari dagokion indizea kalkulatzeko, haren jarduren lurralde-eremua hartuko da kontuan. Hala ere, lurralde-eskumen mugatuagoa duten lurralde-deskontzentratutako unitateek beren jarduera-eremu espezifikuari dagokion indizea bete beharko dute.”

Idazketa horretan bi elementu azpimarratzea oso garrantzitsua da, ondoren epaien azterketa ulertu ahal izateko. Derrigortasun-indizea instituzioari dagokio, ez lan eskaintza bakoitzari. Hots, posible litzateke eskaintza batean inongo hizkuntza eskakizunik ez izatea eta beste deialdi batean lanpostu guztiei hizkuntza eskakizunak ezartzea, derrigortasun-indizeak “lanpostuen kopuru osoaren ehuneko” bati erantzuten baitio.

Eta, bigarrenik, dekretuak ez du zehazten indizea gutxieneko muga den ala ezinbestean gutxieneko eta gehieneko muga den aldi berean. Dekretua onartu aurretik lantzen ari ziren azken bertsioetako batean Eusko Jaurlaritzak indizea gainditzeko prozedura bat jaso zedila proposatu zuen, baina ondoren eragile euskarafoboen presioen ondorioz hori kendu zuen eta epaitegien interpretaziopean utzi zuen gatazkaren elementu nagusia bilakatu duten gai hau.

Eragile euskarafoboen presioaren beste eragin bat izan zen euskara eskakizuna egiaztatzea derrigorrezkoa duten lanpostuetan goragoko hizkuntza eskakizunak egiaztatzeak ez duela meritu gisa baliorik izango. Esaterako, Osakidetzako medikuei B2 maila eskatzen zaie hainbat lanpostutan, bada C1 edo C2 maila egiaztatuta izateak ezin du meritu gisa baliorik izan lanpostu horietarako. Inork imajinatzen du beste edozein arlotan, maila hobea izateak meritu gisa aintzat hartzea legez debekatzeko? Esaterako, beste hizkuntza bat edo medikuen kasuan master bat meritu gisa aurkeztea legez debekatzeko onartuko luke inork? Bada, hori egin dute euskararekin lobby euskarafoboaren presioen eraginez.

“38. artikulua. – Euskara merezimendu gisa baloratzea.

1. – Lanpostu bati dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea nahitaezkoa denean, ez da merezimendu gisa baloratuko hizkuntza-eskakizun hori edo behegoko edo goragoko hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea.”

Hau da gaur egun administrazioen euskalduntzean indarrean dugun araudia. Araudi hau aldatzea eztabaidatzen ari dira Eusko Legebiltzarrean, Enplegu Publikoaren Legearen aldaketa proposatuta.

Nafarroan gaztelaniaren nagusitasuna legez blindatzeko egitura

Nafarroak ez du herritarrek bozkatutako egitura juridiko-politikorik eta LORAFNAk, Foru Hobe-kuntzarako Legeak, arautzen du Nafarroako Estatutua. Bere 9. artikulua jasotzen du gaztelania Nafarroa osoan ofiziala izango dela eta euskara soilik Nafarroako “eskualde euskaldunetan”.

Gerora, Euskarari buruzko 18/1986 Legeak inposatu zuen “zonifikazioa” delakoa, euskarari dagokionez Nafarroa hirutan banatuz eta herritarrei eremuaren arabera hizkuntza eskubide ezberdinak emanez.

Euskararen Legearen 5. artikulua jasotzen du Nafarroako hizkuntzen arabeko eremukatzea: Eremu “euskaldunetan” euskarari ofizialtasuna aitortzen zaio, herritarrek administrazio publikoetan euskaraz artatuak izateko eskubidea dute (teorian), eta EAEn bezala, legeak jasotzen du modu progresiboan administrazioiko langileak euskalduntzeko asmoa.

Eremu mistoan zenbait lanpostutan hizkuntza eskakizunak ezartzeko aukera jasotzen da, baina ez dago administrazioak euskalduntzeko inongo asmorik. Herritarrak euskaraz zuzendu dakizkie-

ke herri administrazioei baina hauek ez daude behartuta herritarrak euskaraz artatzera eta beraz, oso gutxitan bermatzen dira euskaldunen hizkuntz eskubideak.

Azkenik eremu "ez-euskaldunear" herritarrei administrazio publikoengana euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen zaie, baina ondoren administrazioek herritarroi itzulpena eskatu ahal izango diete, edo administrazioen euren itzulpen zerbitzuak erabili itzulpen lanak bere gain hartu. EAEn baino zapalkuntza prozesu gogorrago baten ondorioz, Nafarroan ere gaztelania da ezagutza unibertsala bermaturik duen hizkuntza bakarra eta bere nagusitasuna eta euskararen (euskaldunen) bazterketa bermatzen duen gehiengo soziopolitiko sendoa dago, gutxienez PSNtik Voxeraino zabaltzen dena, sindikatu espainiazaleen eta patronalaren laguntzaz. Horrek guztiak oso egoera zaurgarrian jarri ditu euskara eta euskaldunak Nafarroan.

Bestalde, Nafarroan ez dago legezko derrigortasun-indizerik inon, eta administrazio bakoitzaren arabera (betiere epaitegien interpretazioen menpe) lanpostuak eskuratzeko euskara eskatzeko aukera egon ohi da eremu euskaldunear, baina lanpostu publikoak eskuratzeko euskara eskakizunak ezartzeko aukera oso mugatuta dago eremu euskaldunetik kanpora, eta azken Merezimenduen Dekretuaren ondotik merezimendu gisa ere baloratzea zeharo murriztu du Nafarroako gobernuak eremu "mistoan" eta "ez euskaldunari" dagokionez ez du ezer esaten. Aldiz, gaztelera derrigorrezkoa da lanpostu guztietarako, eta alemana, ingelesa edota frantsesa merezimendu izan daitezke, nonbait, Nafarroa osoko administrazioetako deialdi publikoetan.

Beraz, egun ere oso agerikoa da Nafarroako euskaldunekiko bazterketa are erdeinua ere, gobernuan UPN egon edo PSN egon. Soilik Uxue Barcosek zuzen zuen gobernuan izan zen legegintzaldian egin zen bazterketa egoera lotsagarri hau iraultzeko ahalegin xume bat, 103/2017 Foru-Dekretua, UGTren eta Afapnaren errekurtsio bat tarteko "Nafarroako Auzitegi Nagusiak" bertan behera utzi zuena. Epaitegi horren arabera euskara meritu gisa baloratzeak berdintasun-printzipioa urratzen zuen eremu mistoan eta ez-euskaldunear.

Kuriosoa da berdintasun printzipioaren interpretazio hau, zeren beste edozein ezagutza derrigorrezkoa izatea edo meritu gisa jasotzea ez omen da diskriminatzailea. Euskara, Nafarroako jatorrizko hizkuntza izan arren, nafarrentzat arazo gisa aurkezten dute, baztertzailatzat. Alemaniera, ingelesa edo frantsesa ez. Gaztelera ere ez noski (iparraldeko nafarrentzat oztopo izanagatik), ezta beste edozein ikasketa ere, zein zailtasun mailakoak diren ere.

Geroztik PSNren gobernu "aurrerakoiek" PP eta UPNren eskutik politika euskarafoboak ezartzen jarraitu dute. Alderdi abertzaleak gobernu hauen bazkide (GBai) edo babesle (EHBildu) dira, eta ez dute gobernu-akordioan eta gobernu babesteko egoera diskriminatzaile hau gainditzea ezinbesteko elementu gisa kokatu.

97/2024 Foru Dekretuak, Merezimenduen Dekretu gisa ezaguna denak, administrazioei aukera ematen die Nafarroa osoan atzerriko hizkuntzak meritu gisa saritzeko. Aldiz, euskara soilik saritu ahalko da eremu "euskaldunear" (%3 gehienez ere) eta "mistoan" (%2,1 gehienez ere) egindako lehiaketa oposizioetan, hau da, hutsaren hurrengoa. Udaletan nahi adina balora zitekeen aurretik, eta udal askok orain baino askoz gehiago baloratzen zuten Merezimenduen Dekretua onetsi aurretik (%10 bitarte, esaterako). Bestalde, Nafarroako Gobernuaren administrazioetako lanpostu asko oposizio hutsez (lehiaketarik gabe) betetzen dira gainera, eta hor ez da hizkuntzarik baloratzen.

ELAk eta Steilasek dekretu hau errekurritu genuen eta partzialki arrazoia eman ziguten Auzitegi Nagusiaren 247/2025 Epaiairen baitan, baina zoritxarrez funtsezko elementuak ontzat eman zituen. Edonola ere, dekretua berritu beharko du Gobernuak eta berriro ere eztabaida politikorako aukera sortuko da.

Iparraldean ere egoera oso larrian

Frantses konstituzioaren 2. artikulua hau dio: «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da». Aldiz, 2008 urtetik, 75-1. artikulua beste hau: «Eskualdeetako hizkuntzak Frantziaren ondare dira». 2. artikulua da nagusi baina. Frantziar estatuak euskara eta bere menpean diren Estaturik gabeko beste hizkuntzak itotzeko ekinean dirau oraindik ere.

Ale bat adibide: aurten ere euskaraz eskolatutako ikasleek ezingo dute euskaraz egin Baxoa azterketa (lehenago posible zena ukatuz azken urteotan), frantsesez baizik, hain da zurruna eta erasokorra Frantziar estatuaren hizkuntz politika.

Hezkuntza publikoan murgiltze ereduak debekatu egiten du Frantziak, sortze-agirietan jaioberrien izenak euskarazko (edo bretoierazko, edo...) grafiaz idaztea debekatzen duen gisan. Haurtzaindegietan eta aisialdi zentroetan euskara hutsezko ereduak ezartzearen aurka agertu da Frantzia, era berean.

Estatu politika uniformizatzaile horien aurrean, Euskararen Erakunde Publikoak eta Euskal Hirigune Elkargoak hizkuntz politika proiektuak jarri dituzte mahaigainean. Baiona, Miarritze eta Hendaiak euskara zerbitzuak osatu eta hizkuntza planak abiarazten saiatzen ari dira. Arazoa aipatu dugu arestian ere: Estatuaren marko juridikoaren aurka egiten dute talka atzo baita gaur ere. Izan ere, printzipio politiko bati jarraiki, frantziar legediak frantsesaren monopolioa antolatu du eremu publikoan. XVI. mendean ditu sustraiak dokumentu publikoetan frantsesaren erabilera inposatzen duen legediak. Villiers-Côtteretseko ordenantzak hasitako bideari, Frantses Iraultzaren biharamuneko dekretu batek eman zion segida.

1992ko Konstituzioaren erreformak, Frantziako historian lehen aldiz frantsesa Konstituzioan txertatu zuen: “ Errepublikaren hizkuntza frantsesa da” eta 1994an frantsesaren estatus juridikoa finkatu zuten. Hala, bizitza publikoaren eremu guztietan frantsesaren erabilpena inposatzen da, artikulua frantsesaren erabilpena inposatzen baitie “zuzenbide publikoko pertsoneri eta zerbitzu publiko bat betetzen duten pertsona pribatuei bezala, “zerbitzu publikoan, lanean, irakaskuntzan eta jarduera komertzialetan” dihardutenei. Horren guztiaren ondorioz, Iparraldeko euskaldunen egoera da guztietan zaugarriena eta larriena, eta laguntza eta ekimen premiazkoenak eskatzen dituen.

3. BEHIN-BEHINEKOTASUNAREN ARAZOA ADMINISTRAZIOETAN

Iruzurra nagusi administrazioetan

Administrazio guztietan behin-behinekotasun tasa izugarria izan da eta izugarria izaten jarraitzen du gaur egun ere, Hego Euskal Herrian %40 ingurukoa. Urte luzez eta kasu askotan administrazioek langileak modu prekarioan mantentzeko iruzurren bidez, langile asko behin-behineko egoeran izan dira. Eremu pribatuan iruzur horiek salatuz gero, langileei zuzenena kontratu mugagabea eskaini behar izaten zaie, baina administrazioetan ez dago horrelako mekanismorik hautaketa sistema orokorra oposizioak behar duelako. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak hainbatetan adierazi du langile publikoen iruzur bidezko behin-behinekotasuna zigortzeko mekanismorik ez izateak diskriminazioa eragiten duela behin-behineko langile publikoen aurka, eta Estatuak eta erakunde publikoek egoera hori bideratu beharko luketela.

Kontuan izan behar dugu langileen babesgabezia egoera hori eta iruzurrari aurre egiteko legezko mekanismo falta eragiten duen legedia 7/2007 Enplegu Publikoaren Oinarritzko Estatutua dela, eta berau Espainiako Gobernuak CCOOekin, UGTekin eta CSIF sindikatuekin adostu zuela.

Gogora ekarri behar da, 2017ko Europako epai horien jatorrian ELAk Osakidetzaren aurka abiarazitako demanda bat zegoela, ondoren behin-behineko langile publikoak kontsolidatzeko abiarazitako prozesuek hor dutela jatorria.

Europako auzitegien aginduz estatuko legedia egokitu beharra zegoenez, eragile bakoitzak bere posizioa publiko egin zuen. ELAk ondorengo defendatu zuen kontsolidazioari eta hizkuntzen trataerari dagokienez:

- Hiru urtez behin-behineko gisa lanean aritutako langile guztientzat zuzenean kontsolidatzeko prozesuak abiarazi zitezela.
- Prozesu horietan lanpostua finkatzeko, langileek lanpostuaren betekizunen bat egiaztatzerik ez balute, lanpostu finkoa lortzeko aukera ematea betekizun hori egiaztatzeko arrazoizko epea eskainiz.
- Langileak lanpostuaren euskarazko derrigorrezko eskakizuna bete ezean, ELAk defendatu zuen 55 urteko langileak betekizun horretatik salbuestea, lanpostu finkoa lortzea eta langile horrek erretiroa hartutakoan, euskara eskakizuna egiaztatuta zuen langile batekin ordezkatzea. Eta langile gazteagoen kasuan euskara eskakizuna geroratzea eta euskara ikasteko denbora eta baliabideak eskaintzea langileei, eta denbora horretan euskara ikasten saiatu izana erakutsiz gero salbuespena ezartzeko aukera.

CCOO eta UGT sindikatuek ez zuten zuzeneko kontsolidaziorik defendatu, aldiz, langile guztiek oposizio lehiaketa arruntetara jo behar izatea defendatu zuten. Proposamen horrek langileek lanpostuen betekizunen bat bete ezean edo azterketa gainditu ezean, urte luzez lanean arituta ere lanpostu finkoa lortzerik ez izatea edo kaleratuak izateko arriskua zekarren.

2021eko apirilaren 22an EAEko administrazio publikoetan greba egitea proposatu zien ELAk beste sindikatuei administrazioetako behin-behinekotasunari azkena emateko, baina UGTk ez zuen greba babestu. Nafarroan ELAk ez du EAEn beste indar eta horregatik ez zen grebarik izan.

4. KONTOLIDAZIORAKO MARKO PREKARIO BAT

2021eko uztailaren 5ean CCOO, UGT eta CSIF sindikatuek behin-behinekotasuna murrizteko akordioa sinatu zuten Miquel Icetak zuzentzen zuen ministerioarekin. Akordio horren muina ondokoa zen:

- Langileak zuzenean kontsolidatzeko aukerarik ez.
- Administrazioek iruzur bidez beren lanpostu zerrendetan onartu ez zituzten milaka eta milaka lanpostu ez ziren eskaini, eta ondorioz, ezingo ziren lanpostu horiek langile fin-koen bidez hornitu.
- Oposizio lehiaketan lehiaketa faseak puntuazio osoaren %40 izateko aukera izango zuen eta antzinakotasuna bereziki balioesteko aukera izan zitekeen.
- Behin-behineko langile guztiek hautaketa froga arruntak gainditu beharko zituzten eta froga horiek gainditu ezean ez zuten lanpostu finkorik lortuko eta kaleratuak izateko arriskua izango zuten. Kaleratuak izanez gero, kalteordain bat jasotzea besterik ez zuten aurreikusi.

Horrela, Espainiako Gobernuak eta aipatutako sindikatuek ordura arte urte luzez lanean aritutako langile guztiak lana galtzeko arriskuan kokatzea adostu zuten. Horren arabera, langileren batek lanpostuaren betekizunen bat egiaztatu ezean, ez zuen lanpostu finkorik lortuko, euskarazko egiaztagiririk ez izatearren adibidez.

Espainiako gobernuak akordio hau lege dekretu bidez onartu zuen, baina ez zuen gehiengo nahikorik Kongresuan ondoren berretsi ahal izateko. Besteak beste, ERC, EH-Bildu edo EAJ ez zeuden prest dekretua bere horretan onartzeko. Berrito gogora ekarri beharra dago EAEn sindikatuok greba deitu genduela hiru hilabete lehenago. Azkenean, Espainiako gobernuak lege proposamen gisa tramitatzea onartu zuen, hau da, dekretua onartu ondoren bere edukia aldatzeko konpromisoa hartu zuen.

Ondoren, CCOO, UGT eta CSIF sindikatuen iritziaren aurka, 2021eko abenduaren 2an Kongresuak lege berria onartu zuen uztailean adostutakoa aldatuta, nahiz eta ez zen nahikoa izan behin-behinekotasunaren arazo estrukturala gainditzeko. Akordio berri horren baitan kontsolidaziorako aukera gehiago eskaini zitzaizkien langile publikoei. Aurreko akordioarekiko aldaketa nagusiak hauek izan ziren:

- 5 urte baino gehiago hutsik egondako lanpostuak eta denbora horretan bertan aritu ziren langileak azterketarik egin gabe lehiaketa bidez zuzenean kontsolidatzeko aukera aurreikusi zen.
- Hala ere, Kongresuak ez zuen lanpostu guztiak azaleratzeko eta denak kontsolidaziora eskaintzeko mekanismorik ezarri. Ondorioz, errealitatean administrazioetan ari diren behin-behineko langileak baino askoz lanpostu gutxiago eskaini dira oposizioetan. Hau da, behin-behinekoren arteko hautaketa egon da, meritu gehien dituztenak kontsolidatzeko aukera izanik, baina ez denak. Eta hautaketa prozesuan, lanpostu zerrendetako lanpostuetarako ezarritako betekizun guztiak egiaztatu behar izan dituzte.

5. ADMINISTRAZIOAK EUSKALDUNTZEKO PROPOSAMENAK

ELAren, LABen eta Kontseiluaren proposamena

ELAren abiapuntua beti izan da administrazioak erabat euskalduntzeko prozesu bat gidatu beharra zegoela, prozesu horren ondorioz herritar euskaldunek erdaldun elebakarrek bezala administrazioarekin harremana bere hautazko hizkuntzan egiteko eta langile publikoek euskaraz ere lan egiteko aukera izan dezaten. Hau da, hizkuntz-eskubideak parekatzeko prozesu bat izan dadila.

Era berean, prozesu hori administrazioetan urte luzez lanean aritu diren langileekin batera egin beharra zegoela argi zuen ELAk eta langile guztiei euskalduntzeko aukera errealak eta arrazoizko epea eskaini beharra zegoela.

Filosofia hori oinarri, ELAk, LABekin eta Kontseiluarekin batera, administrazioak 15 urteko epean erabat euskalduntzeko proposamena egin zuen publiko 2022ko irailean. Epe horrek administrazioetan urte hauetan izaten ari diren eta izango diren erretiro kopuruari erantzuten zion. Epe horretan langileen erdiek erretiroa hartuko dute eta traumarik gabeko errelebo bat gida zitekeen administrazioak euskalduntzeko, erretiroa hartu behar zuten langileak langile euskaldunekin ordezkatzu eta langile gazteagoi euskalduntzeko aukerak eskainiz.

Akordioak EAEko errealitateari erantzuten zion arren, Nafarroan ere aplikagarria da, epeak eta prozesua ezberdinak izan arren.

CCOOen EAEko proposamenaren irakurketa kritikoa

UGTk ez du euskarari buruzko proposamen egituraturik, tokian toki administrazioek edo sindikatu euskaltzaleok egindako proposamenei trabak ezartzen dizkie, baina ez du proposamen osorik sekula mahaigaineratu.

CCOO sindikatuak EAEn egin ditu proposamen zehatzak. Proposamen horietan hurrengo elementuak azpimarratu behar dira euren eta gure argudioak alderatuz:

GAIA	CCOOREN ARGUDIOAK	ELAREN-ARGUDIOAK
MARKO IDEOLOGIKOA	Euskara ikasteko eta euskarazko egiaztagiria lortzeko esfortzua egin duten pertsonak pribilegiatuak dira, euskaraz ez dakiten herritarrek baino aukera gehiago dutelako administrazioetan lan egiteko. Euskararen ezagutzaren araberako klase arrakalak eragiten dira eta euskararen ezagutza diskriminatzailea da.	Administrazioetan lan egitea ez da eskubide unibertsal bat. Herritar guztien artean aukeratu egin behar da merezimendu gehien duten herritarrek hautatzeko, eta bi hizkuntza ofizial dauden lurralde batean, bi hizkuntzak ezagutzen dituzten herritarrek merezimendu gehiago dute hizkuntza bakarra ezagutzen dutenek baino. Eta administrazioetan lan egiteko elementu diskriminatzaile nagusia goi-mailako ikasketak izatea da.

GAIA	CCOOREN ARGUDIOAK	ELAREN-ARGUDIOAK
ESKAERA ERREALA	<p>Hizkuntz eskakizunak herritarren hizkuntza hautua errearen arabera ezarri behar dira. Askotan erabiltzen dute Osakidetzako adibidea: bertan %16 eta %19 artean kokatzen dute eskaera erreala. Honek suposatzen du egungo derrigortasun-indizea are gehiago murriztu beharra dagoela.</p>	<p>Hizkuntz hautu erreala zapalkuntza sistematiko baten ondorio da. Euskaldunak ohituta eta etsita daude sarritan bere hizkuntz hautuari uko egin behar izan diotelako, edo euskarazko zerbitzua eskatu dutenean itxaronaldiak eta bestelako oztopoak jasan behar izan dituztelako.</p> <p>Esaterako, Justizia alorrean euskaraz ezarritako prozedurak ez dira %1era iristen, hori euskaldunon hizkuntza hautua da? Ala zapalketa baten poderioz norbere nahiei uko egitearen ondorioa?</p> <p>Menpekotasun egoera batean zapal dutako herritarren hautu "erreala" abiapuntu gisa hartzea erabat supremazista da eta zapaltzailearen logikatik eginga dago. Hori euskararen normalizazioa ezinezkoa egiteko proposamena eta egungo egoeratik atzerapausoak emateko eskaera da.</p>
INDIZEA MUGA	<p>Derrigortasun-indizea gehieneko muga da eta hori izan zen 80ko hamarkadako kontsentsuaren oinarria. Hortik gorako eskakizunak eskatzea prebarikazioa da eta langile erdaldun elebakarrak kanporatzea dakar.</p>	<p>Aurretik ere azaldu dugu derrigorrezko-indizeak euskalduntzea progresiboki egingo zela bermatzea zuela helburu, eta ez dela inoiz izan gehieneko muga. 1989ko dekretuak beren beregi jasotzen zuen indizea gainditzeko aukera.</p>
AGIRIZENTRISMOA	<p>Euskararen gaitasun egiaztagiria euskal gizartearen gutxiengo batek besterik ez du. B2 mailatik gora gizartean %12k bakarrik. Beste guztiak administrazioetatik kanporatuta daude.</p>	<p>Egiaztagiririk ez izateak ez du esan nahi euskaraz ez jakitea, soilik herritar askok egiaztagiririk ez duela. Administrazioetan lan egiteko asmorik ez duten langile askok ez dute egiaztagiririk, nahi ez dutelako edo ez dutelako azterketa bat prestatu nahi izan.</p> <p>Bestalde, badira administrazioetan lan egiteko euskara ikasteko esfortzua egiten dutenak, eta esfortzu hori egin ez dutenak edo egin ezin izan dutenak, administrazioetan lan egiteko beharrezkoa den beste edozein ezagutzarekin bezala, baina beste ezagutza horiek CCOOentzat ez dira "diskriminatzaileak". Dena dela, euskaraz ez jakitea ez da gaixotasun sendaezin bat, ikas daiteke; izan ere jende asko eta askok ikasi du.</p>

GAIA	CCOOREN ARGUDIOAK	ELAREN-ARGUDIOAK
MERITUEI TOPEA EZARTZEA	Derrigorrezko euskara eskakizunik ez duten lanpostuetan merituak gehienez puntuazioaren %10 izan daitezela.	Beste edozein ezagutzarekin ez dute planteatzen merituak mugatzea. Euskaldunak ez diren langileen-tzat kostatuta ahala kostatuta lanpostuak erreserbatu nahi dituzte, herritarren hizkuntz eskubideen gaitetik

Nafarroan UGTren eta CCOOren proposamenak

Nafarroan ez dute inongo orekarik bilatzen, ezta dialektikoki ere. Ez daukate proposamenik, zuzenean beren asmoa euskarazko edozein eskakizun desagerraraztea delako. Eremu euskaldunetik kanpo edozein hizkuntza eskakizunen aurka jotzen dute sistematikoki. Jendaurreko langile bakarra dagoen esparruetan ere prozesuak inpugnatzen dituzte.

Eta euskara eskakizunak berezkoak dituzten eremuetan, esaterako D ereduko ikastetxeetan, saiatu egiten dira bi hizkuntza ofizialak dakizkiten hautagaiek hizkuntza bakarreko hautaketa prozesuetan parte hartzeko aukera izan dezaten soilik.

Hezkuntzan defendatzen dute euskarazko lanpostuetarako lanpoltsa bat sortzea eta gaztelaniazko lanpostuetarako beste bat, eta bietan egotea bateraezina izatea. Bateraezintasun hori bermatzeko azterketak bi hautaketa prozesuetarako egun berean eta ordu berean egitea defendatu izan dute, ezinbestean lanpoltsa bakarrean izena emateko aukera izan dadin. Unibertsitate mailako bi gradu dituen pertsona bati sekula ez liokete planteatuko soilik gradu baten lanpostetan izena eman ahal izatea, Nafarroan euskaraz dakiten herritarrei, berriz, bai. Langile euskaldunak pribilegiatu moduan aurkezten dituzte zerbitzu publikoa emateko aukera gehiago daukatelako eta gaztelania hutsezko zein lanpostu elebidunetarako sarbidea aukeratu dezaketelako. Sinestezina.

Kontsolidazioa eta euskalduntzea

Aurretik aztertu ahal izan dugun bezala, 2021ean ezarritako ez-ohiko araudiak behin-behineko langileei aurretik ez zituzten aukerak ireki zizkien lanpostuak kontsolidatzeko, eta iraganean baino lan deialdi gehiago eskaintzeko aukera izan da. Hori esanik, ez dira behin-behineko lanpostu guztiak azaleratu eta, horren ondorioz, ez da aukerarik izan urte luzez behin-behineko gisa aritu diren langile guztiak kontsolidatzeko; horrek behin-behineko langileen arteko lehia eragin du, eta CCOO, UGT eta CSIF sindikatuek adostutakoaren ondoriozko lehia horretan galtzaile ateratako langileek lanpostua galdu ahal izan dute, edo behin-behineko gisa jarraitu (kasu gehienetan hala izan da oposizio lehiaketan lanpostu finkoa lortu ez duten langileentzat).

Espainiatik inposatutako araudi horren aurrean, ELAk Eusko Jaurlaritzarekin bi negoziaketa bide ireki ditu:

1. LANGILE GUZTIAK KONTSOLIDATZEA: Legeak emandako aukerak mugara eramateko saiakera egin du ELAk administrazio guztiak beren behin-behineko lanpostu guztiak azaleratzera behartzeko eta gutxienez hiru urtez administrazioetan lanean aritu diren langile guztiak kontsolidatzeko.

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako gobernuak ez dute horrelako prozesurik negoziatu nahi izan eta administrazioek ez dituzte eskaini behin-behineko lanpostu guztiak. On-

dorior, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren menpeko administrazioetako langileek %30etik gorako behin-behinekotasun tasa jasaten jarraitzen dute.

2. ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEA ETA TRANTSIZIO ARAUDI BAT ONARTZEA:

Konsolidazio prozesuan langile guztiek lanpostua kontsolidatzeko aukera izatea defendatu du ELAk, baina administrazioak erabat euskalduntzeko prozesu baten baitan (aurretik LABekin eta Kontseiluarekin adostutako terminoetan).

Euskara egiaztagiririk ez zuten langileek kontsolidatzeko aukera izan zezaten, ELAk bilera izan zuen Hizkuntza Politiketarako Sailburuordetzarekin 2022 urtean eta ondorengo proposatu zion:

- 15 urteko epean administrazioek lanpostu guztietan euskarazko hizkuntza eskakizunak ezarrita izatea igarotako derrigortasun data, gaztelania lanpostu guztietarako derrigorrezkoa den bezala.
- 55 urtetik gorako langile guztiak euskalduntzetik salbuestea, langile finkoak nahiz behin-behinekoak izan, eta behin-behineko langileei adin horretara helduta lanpostua kontsolidatzeko aukera eskaintzea, eta langile horiek erretiroa hartzerakoan lanpostu horiei igarotako derrigortasun data ezartzea.
- 45 urtetik gorako langileei, administrazioan lanean urte luzez aritu badira, hizkuntza eskakizunen derrigortasun data geroratu eta euskara ikasteko liberazioak eskaintzea. Eta epe horretan euskara ikasteko ahalegina erakutsi balute, hau da, ikastaroetara normaltasunez joan badira, euskara azterketak gainditu ezean salbuespenak egiteko aukera eskaintzea.
- 45 urtetik beherakoei hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data geroratzeko aukera ematea eta liberatzeko denbora eskaintzea euskarazko egiaztagiria lortu ahal izateko arrazoizko epe batean.

Eusko Jaurlaritzak uko egin zion bati eta besteari, ELAk erantzunik ere ez zuen jaso proposamenak egin ondoren. Ondorioz, behin-behinekotasuna handia da oraindik ere euskal administrazioetan eta administrazioa erabat euskalduntzeko trantsiziorik ez da gauzatu (eta oldarraldi judiziala ekidin zitzaketen trantsizio neurriak ere ez dira hartu).

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako sindikatuek zein gobernuak ezarritako araudi honek ekarri du behin-behineko langileen arteko lehia. ELAk defendatu du bi hizkuntza ofizialak ezagutzeak bakarra ezagutzeak baino gaitasun hobea bermatzen duela, eta behin-behineko langile batek lanpostua lortzearen truke ezin zaiola lanpostuari (euskarazko) hizkuntza eskakizuna betirako kendu. CCOOk defendatu du erdaldun elebakarrentzako lanpostuen erreserba egin beharra zegoela eta hainbat lanposturi (euskarazko) hizkuntza-eskakizunak betirako kentzea zilegi dela.

Nafarroan ere gobernuari proposamenak helarazi genizkion norabide berean. Kasu honetan bilerarik ere ez genuen izan gobernuak aukera hori ukatu zuelako.

6. OLDARRALDI JUDIZIALAREN AZALPEN JURIDIKO-POLITIKOA

Oldarraldi judiziala egon badago eta aurreko marko horretan kokatu behar dugu. Zeren eta bada eraso antolatatu bat, edo behintzat atzeraldi antolatatu bat. Antolatua da, zenbait eragilek demandak probokatu dituztelako, eta horretarako babes politiko eta mediatikoa izan dutelako. Administrazioen euskalduntzea oztopatzen duten lau epai mota izan dira:

- Derrigortasun-indizearen baitan hizkuntz eskakizunen derrigortasunak kentzekoak.
- 45 urtetik gorako behin-behineko langileak euskara ezagutzetik salbuesten dituztenak.
- Administrazioen azpikontratazioetan hizkuntza klausulak ezartzea debekatzen dutenak.
- Eta administrazioen euskarazko funtzionamendua ezinezko egiten dutenak.

Goazen horietako bakoitza aztertzeraz:

Derrigortasun-indizea muga gisa ezartzen duten epaiak

Aurretik araudia azaldu dugu. Araudi horren aplikazioan epaitegiek orain urte gutxira arte ulertu dute derrigortasun-indizea gutxieneko muga bat zela eta administrazioek gainditzeko aukera zutela erabateko euskalduntze prozesu baten logikan.

Esaterako, 2011n CCOO sindikatuak Bizkaiko Gizarte-Ongizate Foru Erakundearen aurkako demanda ezarri zuen hizkuntza eskakizunak murriztu zitezela eskatzeko, besteak beste Bizkaiko Aldundiaren erakunde horretan derrigortasun-indizea gainditua zegoelako. Bada, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak Aldundiaren alde jo zuen eta 3379/2011 epaian adierazi zuen: “no es obstáculo a la elevación del perfil lingüístico o a la fijación, en su caso, de la fecha de preceptividad la superación del índice de obligado cumplimiento definido por el artículo 11-1 del Decreto 86/1997 de 15 de Abril sobre la normalización del uso del euskera en la Administración Pública del País Vasco en cuanto que se trata de un módulo que fija los objetivos porcentuales mínimos en cada período del Plan de Normalización y que por lo tanto solo determina con ese carácter el límite del ejercicio de las potestades discrecionales de la Administración en ese ámbito de actuación orientadas a la adecuada capacitación lingüística del personal a su servicio por los medios que debe proporcionar la propia Administración, según el artículo 97.8 de la Ley 6/1989” (Funtzio Publikoaren Legea).

2020. urtetik aurrera beste interpretazio batzuk egin dira, legeek eta dekretuek une horretan inongo aldaketarik izan ez zuten arren. Aldaketa nagusiak ondorengoak dira:

1. DERRIGORTASUN-INDIZEA GEHIENEZKO MUGA GISA EZARTZEA:


86/1997 Dekretuaren eta beraz ordezkatu duen 19/2024 Dekretuaren arabera, derrigortasun-indizea lurralde eremu bakoitzean dauden euskaldunen ehunekoak eta ia-euskaldunen erdien ehunekoak osatzen dute. 2020ko epaien ondoren indize hori gehieneko muga gisa interpretatzen hasi dira.

Eta ez da soilik muga bat dela, muga ezartzeko argudioak kasu batzuetan erabat iraingarriak direla baizik. Esaterako, Irungo udaltzaingoaren kasuan udaltzain guztiei hizkuntza-eskakizunik ez ezartzeko argudioa hurrengoak izan zen: “Sería suficiente con que uno de los integrantes de cada pareja y alguno de los agentes que atiende al público conozcan el idioma. Sin embargo, la administración ha optado aquí por exigir, como requisito ineludible para poder aspirar a ser policía municipal, acreditar un determinado nivel de euskera. Requisito que, como hemos explicado,

no está justificado para garantizar los derechos de los ciudadanos y que, de este modo, se ha convertido en un elemento de discriminación hacia una parte importante de la población". Zentzuduna den edonorentzat ez da sinesgarria udaltzain bat herritar bati erdaraz zuzentzen bazaio, herritarrak egoera zaurgarri batean -esaterako isun bat jartzen ari zaizkionean- beste udaltzain bat etortzea eskatuko duela pentsatzea. Gauza bera esan daiteke beste hainbat egoera zaurgarritan: osasun arazoak tartean direla, laguntza eskaera bat egiterakoan, administrazioari baimen bat eskatzean...

Iraingarria gertatzen da ondoko esaldia ere: "Es completamente desproporcionado que, siendo el colectivo de euskaldunes de la provincia de Bizkaia del 36'31%, estos puedan optar al 100% de las plazas mientras que el colectivo castellano parlante que representa al 43'67% de la población, solo pueden optar al 7%". Batetik, epaitegiak ahazten du euskaldun oro erdalduna ere badela eta, bestetik, erdaldun elebakarrek euskara ere ikasi dezaketela eta denek dutela aukera lanpostu guztietarako hautagai izateko euskara ikasiz gero.

Kasu batzuetan epaitegiek ez dute helduleku argirik topatu euskal araudian derrigortasun-indizearen aurka, kasu horietan zuzenean Espainiako Konstituzioaren interpretazio zurruna egin dute, edo Auzitegi Konstituzioanalak esan bezala: "la Constitución consagra el derecho fundamental al acceso a la función pública en condiciones de igualdad (art. 23.2) y según criterios de mérito y capacidad (art. 103.3), por lo que la garantía a que se refieren los recurrentes no puede suponer para determinados españoles un condicionamiento en el ejercicio de uno de sus derechos fundamentales que, yendo más allá de lo exigido en el art. 3.1 de la Constitución, vacíe de contenido ese derecho". Berdin die euskal araudiak zer jasotzen duen, Espainiako Konstituzioaren arabera lan deialdi guztietan erdaldun-elebakarrek lanpostu finkoa lortzeko aukera izan behar baitute epaileon iritziz.



Derrigortasun indizea: %50


2. DERRIGORTASUN-INDIZEA DEIALDI BAKOITZERAKO ETA EZ ERAKUNDE BAKOITZERAKO AINTZAT HARTZEA:

Arauk aztertuta argi azaltzen da derrigortasun-indizeak erakunde bakoitzerako helburua ezartzen duela eta erakunde bakoitzak irizpide ezberdinen arabera erabakiko duela indize hori nola banatu. Logikoa den moduan, euskarazko hizkuntz eskakizuna eskatzeko garaian administrazioak saiatu behar dira jendaurreko lanpostuei lehentasuna ematen beste lanpostu batzuen aldean.

Alabaina, epaitegiek erabaki dute indize hori lan deialdi bakoitzerako izan behar dela aplikagarri eta administrazioek ez dutela autonomiarik indizearen banaketa egiteko. Esaterako Auzitegi Nagusiaren 421/2024 epaiak honakoa dio: "las previsiones o cálculos de los sucesivos planes de normalización del uso del euskera aprobados por el Consejo de Gobierno Foral respecto a los índices de preceptividad y su aplicación a los puestos de esa Administración no excusa de su aplicación en las correspondiente OPE y "convocatoria a convocatoria " conforme a las normas constitucionales antes citadas".

Aldaketa horrek ondorio larriak dauzka, jendaurreko lanpostuei ezin zaiela lehentasunik eman eta lan-deialdi guztietan erdaldun elebakarrentzako lanpostuak erreserbatu behar direlako ondorioa baitakar, lanpostuon izaera kontuan izan gabe.

Gogora dezagun dekretuek hitzez hitz diotena: “Euskal sektore publikoko entitate bakoitzari dagokion indizea kalkulatzeko, haren jardunaren lurralde-eremua hartuko da kontuan”.




Derrigortasun indizea: %50

3. LANPOSTU-ZERRENDA ALDATZEKO AUKERA:

Administrazioek beren lanpostuak ordenatzeko lanpostu zerrenda onartu behar dute. Lanpostu zerrendan jaso behar da lanpostu guztien deskribapena eta lanpostu horiek eskuratzeko betebeharrak. Ondoren, lan deialdiak horren arabera egin behar dira eta administrazioen gobernu organoek ezin dituzte beren kasa aldatu. Hau neurri demokratikoa da (adibidez, udal bateko osoko bilkurak onartu behar du lanpostu zerrenda), batetik, eta gobernu organoen arbitrariotasuna saihesten du (udal gobernuak edo alkateak ezin du lan deialdia bere kontura aldatu euren gogoko hautagaiak aukeratzeko).

Oinarrizko printzipio demokratiko hau euskararekin urratu nahi dute epaitegiek. Praktikan, udal gobernuak prebikaritzea eskatzen dute, bere kasa osoko bilkura batek onartutako lanpostu zerrenda aldatu gabe lanpostuen ezaugarriak aldatuz. .

Auzitegi Nagusiak, adibidez, 602/2020 errekurtsioan ondokoa jasotzen du: “Hemos de tener en cuenta que el recurrente aspira a participar en un procedimiento de selección de funcionarios públicos. De tal modo que la primera vez que se ha visto afectado por los actos de la administración ha sido en el momento en que se ha convocado el proceso de selección y se han aprobado las bases reguladoras correspondientes. No puede pretenderse, pues, que los ciudadanos recurran las relaciones de puestos de trabajo por si en algún momento toman la decisión de participar en un procedimiento de este tipo”.



4. EPAITEGIEK ERABAKITZEA LANPOSTU MOTA BATZUETAN EZIN DELA HIZKUNTZA ESKAKIZUNIK EZARRI

Derrigortasun-indizea erabat ahaztuta, epaitegiek erabaki izan dute lan mota batzuetan ezin dela hizkuntza eskakizunik ezarri, eta kitto. Esaterako, Donostiako Administrazioarekiko 2. epaitegiak ebatzi zuen Pasaiako udaleko kale garbitzaileei ezin zaiela hizkuntza eskakizunik ezarri 79/2024 epaian: “podemos concluir que la exigencia del perfil lingüístico de euskera 1, en las plazas de operario de limpieza viaria, resulta contraria a los artículos 14 y 23.2 de la Constitución Española, ya que si bien es cierto que todas las administraciones del País Vasco tienen que garantizar la presencia de personal vascoparlante para garantizar el derecho a usar el euskera por parte de los ciudadanos de esta Comunidad Autónoma que así lo deseen, sin embargo, de las funciones de los operarios de limpieza viaria anteriormente descritas, no se contempla ninguna relativa a una asistencia o atención al ciudadano, al ser todas ellas funciones relacionadas con la limpieza de las vías públicas”.

Aurreko epaiaren logika berarekin, EAeko Auzitegi Nagusiak 77/2026 epaia eman du, udaletako interbentore eta idazkari lanpostu batzuetan (ez lanpostu guztietan) 4. hizkuntza eskakizuna exijitzea debekatzen duena ondorengo argudioarekin: “no es exigible en modo alguno que, en contra de la naturaleza de las funciones de las plazas, se exija el conocimiento del euskera como un requisito PL4, en los términos pretendidos por la Administración, cuando ha quedado acreditado que las plazas no guardan relación con puestos que deban tener relación con la ciudadanía y con el derecho de esta a ser atendida en euskera”. Kontuan izanik interbentore eta idazkariak udal bateko dokumentazio ekonomiko eta juridiko guztia gainbegiratu behar dutela, epai honek dioena da interbentore eta idazkariak eskubidea dutela dokumentazio hori guztia gaztelaniaz landu dadin eta beren txostenak gaztelaniaz egiteko, modu horretan udalaren funtzionamendu guztia eraldatuz, ez direla jendaurreko lanpostuak. 4. hizkuntza eskakizunak lanpostu bereizi baterako hizkuntza teknikoaren jabe izatea adierazten du, idazkari edo interbentore baten lana, hain zuzen, txosten teknikoak idaztea eta adieraztea da, eta euskaraz egiteko gaitasunik eduki ezean, ezinbestean gaztelaniaz egin beharko dute. Hizkuntza eskakizuna gehiegizkoa da, baina estatu mailako gaitasuna lortzeko frogara (izugarri zaila dena) ez da diskriminatzailea zuzenbidean ikasi duten pertsonentzat?


Nor da epaitegi bat erabakitzeke zein lanpostu motak behar duen hizkuntza eskakizuna eta zeinek ez? Batetik, dekretu ezberdinek hizkuntza eskakizunak ezartzeko irizpideak ezarri dituzte eta lehentasunak arautu dituzte, baina ez dute inon esaten soilik jendaurreko lanpostuetan ezarri daitezkeela hizkuntza eskakizunak. Bestetik, epai horien logika da administrazioen barne funtzionamenduetan betirako gaztelaniaz izan beharko duela, ez baitago euskarazko eskakizunik ezartzerik jendaurreko lanpostuetatik kanpo eta, ondorioz, soilik gaztelania exijituko dela bermatuko baita.

Eta, azkenik, soilik jendaurreko lanpostuetan ezarri ahal badira hizkuntza eskakizunak eta horietan derrigortasun-indizea izango bada muga, praktikan instituzioak ez du sekula lortuko derrigortasun-indizera iristea. Esaterako, udal batean eremu soziolinguistikoaren arabera indizeak %50ekoa behar badu, baina lanpostuen erdietan ez badago exijitzerik ez direlako jendaurrekoak eta besteetan muga %50 bada, praktikan udal horren derrigortasun-indizea %25ekoa izango da.

Aipatzekoa da, CCOO sindikatuak kontrakoa esan arren, abiarazitako hainbat auzitan ez zegoela kaltetua izan zitekeen langilerik eta ez zegoela inork lanposturik galtzeko arriskurik. Esaterako, CCOO Arkauteko udaltzaingoen lan poltsa bateratua errekurritu zuen hautagai guztiei euskarazko B2 maila eskatzen zitzaielako. Ez zegoen inork kaleratzeko arriskurik, lehen aldiz udaltzain izateko aurkezten ziren hautagaiak baitziren.

Eta, ondoren ikusiko dugun bezala, CCOOko militante batzuek lan deialdian inongo interes legitimorik ez zuten pertsonak bilatu zituzten, deialdian beharrik gabe izena eman zezaten eta, horrela, lan deialdiak inpugnatu ahal izateko. Hau iruzur prozesal argi bat da.

Lan deialdi bat errekurritzen den bakoitzean badira kaltetutako beste langile asko, oposizio-lehiaketa gainditzeko aukerak dituztenak edo jadanik gainditu dituztenak. Kasu hauetan eskakizunak dituzten langileak kaltetzen dituzte eta kaleratuak izateko arriskuan kokatzen dituzte. Zeren, aurretik aipatu dugun bezala, behin-behineko langile guztiek ezin badute lanpostu finkoa lortu, beraien arteko lehia badago, beti izango da kaltetutako langileren bat, hizkuntza eskakizuna duena ala ez duena, herritar guztiak artatzeko gaitasuna duena edo ez duena, euskara ikasteko ahalegina egin duena edo halakorik egin ez duena (edo egiterik ez duena izan)...



Derrigortasun indizea: %50

45 Urteetik gorako behin-behineko langileak euskara ikastetik salbuestea

Epai desberdinak izan dira, langile finkoak 45 urteetik aurrera euskararen ezagutza egiaztatzetik salbuesten dituzten bezala, behin-behineko langileak ere salbuesten dituztenak. Epai hauek ulertereko garrantzitsua da bi kontzeptu argi izatea:

- Salbuespena zer da? 19/2024 Dekretuak hurrengoa dio:

“Langile hauek ez dute hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-araubide orokorra bete beharrik izango, titular diren lanpostuari dagokionez: a) Titular diren lanpostuari derrigortasun-data ezartzen dion plangintzaldi bakoitzaren hasieran 45 urte baino gehiago dituztenek, interesdunaren aldez aurreko adostasunarekin. 5 Salbuetsita egongo dira, halaber, titular diren lanpostuari aldez aurretik esleitutako hizkuntza-eskakizuna aldatzea onartu eta 45 urteetik gorakoak direnak, interesdunaren aldez aurreko adostasunarekin”.

Arau honen arabera 45 urteko langile finko bat ezin dute kargugabetu bere lanpostuari hizkuntza eskakizuna ezartzen bazaio adin hori bete ondoren, baina ez du aukerarik beste lanpostu bat betetzeko prozesuan parte-hartzeko.

- Oposizio bat ez gainditzeak kaleratzea suposatzen du?

Behin-behineko langile izanik hautaketa prozesu bat gainditzen ez denean, norbere lanpostua baldin bada eskaini dena, lana galtzeko arriskuan izan daiteke. Hori esanik, posible da behin-behineko lan postsetan geratzea eta beste lanpostu bat egokitzea behin-behineko langile gisa, edota norbere lanpostuan jarraitzea, lan-deialdian beste lanpostu

bat eskaini delako. 2020tik aurrera behin-behineko gisa aritu diren milaka eta milaka langilek ez dute lortu lanpostu finko bat, baina ia denek behin-behineko langile gisa lanean jarraitzen dute.

2020tik aurrera izan dira epaiak 45 urtetik gorako behin-behineko langileei langile finkoen babes bera eskaini behar zaiela esaten zutenak. Epai batzuek azaltzen zuten lan deialdietan parte-hartze-ko eskubidea izan behar zutela eta beste batzuek ezin zituztela langileak kargugabetu hizkuntza eskakizuna 45 urte beteta zituztenean ezarri bada, baina ez dutela eskubiderik lan-deialdian lanpostu finko bat lortzeko. Azken interpretazio hau da azkenik gailendu dena.

Esaterako, honakoa adierazten du Donostiako Administrazioarekiko 2. Epaitegiaren 93/2024 epaiak: “Es tan sencillo como imaginarse la hipótesis de dos puestos de la misma clase, con el mismo contenido y exigencias y servidos por dos empleados de la misma edad. No tendría ningún sentido que el funcionario de carrera pudiese continuar desempeñando el puesto al alcanzar los 45 años y no pudiese hacerlo el interino, ninguna razón objetiva lo justifica a la vista de la regulación de la exención y de la propia realidad de tratarse de dos situaciones objetivamente equiparables”.

ELAren iritziz, epai hauek izan dezakete zentzua bi langile talderen arteko diskriminaziorik ezin delako izan, baina, era berean, epai hauek ezinezkoa egiten dute akordio politiko bat gauzatzea langileak kontsolidatzeko, baina euskara ikasteko betebeharra ezarrita eta laguntza eskainita.

Era berean, ELArentzat gogorra izan da salbuespen honen aplikazioa kasu batzuetan. Kasu batean udalak langilea aurretik liberatu egin zuen eta langilea euskara ikasteko liberatuta egon zen garaian ez zen euskaltegira joan eta, ondorioz, egoera horren jakitun, udal horrek langile guztiei liberatzeko aukera kendu zien. Eta beste kasu batean, udalak langileari liberatzeko aukera eskaini zion kargugabetu aurretik eta langileak uko egin zion, besteak beste bere lanpostuaren arabera ikastetxeetako hurrekin zuzenean lan egin behar bazuen ere.

Bestalde, gogorra izan da ere epai batzuetako argudio euskarafoboak irakurtzea, esaterako, Lau-dioko Udalaren kasuan epaiak hurrengoak zihoen: “La Administración parece olvidar que el euskera ocupa la quinta posición de los idiomas más difíciles del mundo (en algunas listas aparece incluso el primero). La principal dificultad de esta lengua es que no comparte ninguna conexión con ningún otro idioma, ya que ha evolucionado a lo largo del tiempo de forma aislada a lo que se añade la complejidad de su estructura y un vocabulario cuyas palabras cambian de significado al adicionarse uno de los cientos de sufijos, prefijos e infijos que se dan en esta lengua. El alegato del Ayuntamiento de Llodio al esgrimir que tras 1.295 h SOLO ha alcanzado un PL 1, denota una nula sensibilidad hacia las extraordinarias dificultades que entraña esta lengua y expone el cese, a modo de castigo por no acreditar capacidad para superarlas tras dicho esfuerzo. A pesar de ello, debe destacarse que alcanzó el PL 1”. Epaiak web orriak erabili zituen argudio juridiko gisa euskara eskakizunak tratatzeko. Ez da beste azalpenik behar.

Administrazioen azpikontratetan hizkuntza klausulak debekatzea

CCOO sindikatuak Barakaldoko udaleko kultur egitasmoak kudeatzeko zerbitzuaren lizitazioa inpugnatu zuen. Kasu honetan, lehenik onartu beharra dago udalak egoera oso gaizki kudeatu zuela eta, aurretik inongo hizkuntza eskakizunik gabe zerbitzua esleitu ondoren, langileak euskalduntzeko plangintza eta eperik ezarri gabe lizitazio berrian hainbat obligazio ezarri zituela langileengan eragina izan zezaketenak, nahiz ahoz esan malgutasun handiarekin jokatuko zuela.

Hori esanik, CCOO sindikatuak gatazka sindikal bat eta grebak deitu beharrean, lizitazioaren aurkako demanda abiatu zuen eta zuzenean uko egin zion azpikontratazioan inongo hizkuntza eskakizunik ezartzeko aukerari eta hizkuntza klausulak debekatzea eskatu zuen.

Epaitegian CCOO sindikatuak ondoko eskaerak egin zituen, besteak beste:

- Langileen gehiengoak ez zuela euskararen ezagutzarik eta horrek ez zuela inongo arazorik eragin. Baieztapen hau erabat supremazista da. Barakaldon herritar euskaldunak erabat ohituta daude beren eskubideei uko egitera. Uko egiten dute, ez borondatez, behin eta berriz errepikatzen den zapalkuntzarekiko etsipenagatik baizik.
- Azpikontratazioan hizkuntza klausulak ezartzea debekatzea eskatu zuten. Honek ez du soilik eragina Barakaldon, aurrekari bat da beste edozein azpikontrataziorako.

CCOO sindikatuaren eskaerari jarraiki, EAEko Auzitegi Nagusiak 416/2022 epaia eman zuen. Auzitegiaren arabera ez dago hizkuntza klausularik eskatzerik, administrazioen kontratazioan kontratatutako enpresa batek zerbitzua eskatzen duen herritar baten maila omen duelako: “es criterio de esta Sala y Sección que la introducción de criterios de empleo de las lenguas cooficiales para los contratistas en todas las figuras de la contratación administrativa (aún más con la generalidad e intensidad que se deriva de la normativa impugnada) infringe la referida legislación de carácter básico”.

Argudio horri jarraiki, Auzitegi berak 66/2023 epaia eman zuen. Kasu honetan, eskola garraioen kontratazioetan hizkuntza klausulak eskatzea debekatu zuen eta, ondorioz, epaitegiak ondorioztatu zuen D eredura doazen ikasleak erdaraz egitera derrigortu ditzakeela administrazioak kontratatutako zerbitzu batek.

Legeak eta arauak bertan behera uzten dituzten epaiak

VOX eskuin muturreko alderdi politikoak EAEko Udal Legea eta berau garatzen zuen Dekretua inpugnatu zituen. Eta, ondoren, argudio berekin eta helburu berarekin CCOO sindikatuak Eusko Jaurlaritzako Administrazio Orokorreko hizkuntza irizpideak inpugnatu zituen.

Besteak beste, Auzitegi Gorenak 911/2025 Epaiaren araudiak aurreikusten dituen hurrengo elementuak deuseztatu zituen:

1. **Udalen planifikazioak administrazioaren egintzak euskaraz garatu ahal izatera bideratuko direla.** Arau honek aukera sortzea dakar, kontuan izanik momentu honetan udal gehienen funtzionamendua erdaraz dela soilik, ez badira baldintza egokiak sortzen egintzak euskaraz ere garatu ahal izateko, gaztelania izango litzateke lan hizkuntza bakarra.
2. **Udaletan hizkuntzen erabilera arautu ahal izatea.** Edozein harremanetan bezala, indar harreman desorekatu bat dagoenean, harreman hori orekatzeko araurik ezarri ezean nagusi denak bere nagusitasunari eutsiko dio ezinbestean. Euskararen eta euskaldunen zapalkuntza ez den bestelako zapalkuntza batzuen aurrean epaitegiek ez lukete horren erraz erabakiko ezin direla harremanak arautu, edota indar harremanak orekatzeko ezin dela diskriminazio positiboko neurririk hartu.
3. **Udalen barne funtzionamenduan erabiltzen diren dokumentuak (gai zerrendak, mozioak, aktak...) euskara hutsean egiteko aukera, eta inork erdaratzea eskatuz gero hala egitea.** Udal gehienen barne funtzionamendua erdara hutsezkoa da eta horrek ez du arazorik eragiten, baina herritarrekiko harreman zuzenik ez dagoenean debekatu egiten da euskara hutsezko funtzionamendua izatea, eta gehiegizkotzat jotzen da erdaldun elebakar batek erdarazko zerbitzua eskatzea.

4. **Administrazioetako langileek herritarrek euskaraz agurtzea arautzea.** Agurra, lehen hitza euskaraz egitea funtsezkoa da herritarra euskaraz egitera gonbidatzeko. Euskaldunak erabat ohituta gaude euskaraz egiteko edozein traba ezartzen digutenean (zapalkuntza sistemikoaren ondorioz sarritan ezin izaten baitugu euskaraz egin) euskarari uko egin eta harremanak gaztelaniaz gauzatzera. Honek estres linguistikoa dakar. Bada, herritar euskalduna euskaraz agurtzean euskaraz egiteko gonbidapena luzatzen zaio eta asko errazten du estres linguistikoa gainditzea. Hori debekatzea supremazismoan oinarritzen da.

5. **Azpiktratatutako enpresekin harremana eta lana euskaraz egingo dela arautzeko aukera.** Sistema kapitalista honetan hau izango da bezeroak agintzeko eskubidea ez dueneko adibide bakanetakoa, saltzaileak baizik. Epaitegien arabera, administrazioak kontratatutako enpresa batek administrazioa erdaraz aritzera behartzeko eskubidea du.

Elementu horiek guztiak erabakitzeke argudioak oso argigarriak dira, erabateko hizkuntza supremazismoa eta gaztelaniaren nagusitasuna defendatzen dituzte eta. "La cooficialidad supone la igualdad entre ambas lenguas de modo que la actuación bien de elaboración normativa bien propiamente administrativa ha de desarrollarse de modo que no se altere el equilibrio entre ambas; no puede haber predominio o superioridad de una sobre la otra". Baina gaztelania indarrez nagusitu da, ondorioz, indar harremanak orekatzeko neurririk hartu ezear, eta desorekan dauden bi hizkuntzei trataera bera emanez gero, jatorrizko desoreka hori betikotu egiten da.

"Ha de tenerse presente también que la Constitución en su art. 3 no impone el deber de conocer las lenguas cooficiales distintas al castellano.... y como declaró la STC 31/2010, que quienes prefieran que su lengua de comunicación con las Administraciones sea el castellano hayan de pedirlo expresamente". Baina hau da, hain zuzen, euskaldunoi behin eta berriz eskatzen zaiguna, herritarrek oso zaurgarriak garen egoeretan euskarazko zerbitzua eskatu behar dugu, ohiko bi-deetatik kanpo. Lehen ere azaldu dugu lrungo udaltzaingoarekin justiziak esandakoa. Elebitasuna ez bada unibertsala euskaldunak beti izango du nabarmendu beharra zerbitzua eskatzeko, baina erdaldun elebakarrak zerbitzua erdaraz eskatu behar izatea onartezina da.

Aurrekoa argiago gera dadin Auzitegia Konstituzionalak hurrengo dio: "no es constitucionalmente admisible desde la perspectiva del art. 3.1 CE, la prescripción de un uso prioritario del euskera que suponga un desequilibrio injustificado y desproporcionado del uso del castellano. Es por ello exigible que se respete la prohibición de establecer formalidades o condiciones que comporten cargas u obligaciones para poder ejercitar el derecho a la libre opción de la redacción en castellano de los documentos mencionados en el art. 6.2 de la Ley de instituciones locales de Euskadi, sea mediante su traducción o el empleo de la forma bilingüe". Honetan ere Auzitegiek atzera egin dute, Auzitegi Konstituzionalaren 31/2010 epaiak beste zerbait aurreikusten zuen eta aztertzen ari garen Auzitegi Konstituzionalaren epai honek jasotzen duen boto partikularrak azpimarratzen du atzeraldia: "Considerar que la mera solicitud supone una formalidad o condición que vulnera el art. 3.1 CE supondría acabar con el régimen de cooficialidad que este tribunal viene construyendo desde los años ochenta. Y a nivel práctico el resultado sería, necesariamente, el bilingüismo generalizado: si ni siquiera se puede exigir la solicitud del castellano, toda la documentación debe estar al alcance en las dos lenguas".

VOXek irabazitako Auzitegi Goreneko epaiaren ondoren CCOO sindikatuak alderdi faxista horren eskaerak errepikatu zituen Administrazio Orokorreko hizkuntza ofizialen irizpideak errekurritzean. CCOOren eskariz ondorengo irizpideak balio gabetu zituen EAEko Auzitegi Nagusiak 525/2025 epaian:

- **Herritarrek, administrazioek azpiktratatutako enpresekin harremanetan, zuzenean administrazioarekin izango lituzketen hizkuntza eskubide berdinak izatea.** Hau da, herritarrek ezingo dute eskatu azpiktratatutako zerbitzu publikoetan enpresek hizkuntza eskubideak bermatzea eta gaztelaniaz aritzera behartuak izan daitezke.

- **Azpiktratatutako enpresek administrazioarentzat lanean ari direnean dokumentazioa euskaraz ere derrigorrez aurkeztu behar izatea.** Azpiktratatutako enpresek dokumentazioa orokorrean gaztelaniaz soilik aurkezten dute, ondorioz, administrazioaren funtzionamendua erdalduntzen dute, administrazioentzat lanean ari direnean ere.
- **Zerbitzu publikoetan langileek agurra euskaraz egitea eskatzea.**
- **Formazioa euskaraz derrigorrez egiteko aukera hizkuntza eskakizunak dituzten langileentzat.** Langile publikoek hainbat formazio derrigorrez jaso behar izaten dituzte eta formazio horiek gaztelaniaz izaten dira. Hau da, formazioa gaztelaniaz derrigorrez jaso behar izaten da eta hemendik aurrera formazioak euskaraz jasotzea hautazkoa izango da. Ondorioz, formazioa soilik gaztelaniaz eskaintzen jarraituko dute administrazioek.
- **Euskararen ezagutza egiaztatuta duten langileei dokumentuak euskara hutsez emateko aukera.** Administrazioetan lan dokumentuak gaztelania hutsez lantzea eta langileei eskaintzea da ohikoena. Bada, hori ezingo da euskaraz egin eta, ondorioz, lan hizkuntza gaztelania izatea inposatuko da. Itzulpenak normalean herritarrei eskaintzen zaizkien dokumentuetan bakarrik egiten dira, beraz, lan hizkuntza originala bakarra izaten da, hizkuntza horrek ezin badu euskara izan derrigorrez gaztelania izango da.

7. OLDARRALDI JURIDIKOA MODU ANTOLATUAN ERAGIN DA

Aurretik aztertu ditugun epai hauek denak ez dira hutsetik sortu. Alde batetik, norbanako langileek bere lan eskubideen defentsan abiarazi dute prozedura. Beste aldetik, kaltetutako langilerik egon gabe VOX alderdiak, UGT sindikatuak eta, bereziki (gehienetan), CCOO sindikatuak edo CCOO sindikatuko militante esanguratsu batzuek abiarazi dituzte beste hainbat.

ELAk uko egin dio horrelako gaiak babesteari. Izan dira sindikatura babes juridiko eske etorri diren langileak eta ELAk ez ditu demanda horiek bideratu. Demanda horien muinean, langile zehatz batzuen hobekuntza pertsonal bat izateko (lanpostu finko bat lortzea), administrazioen euskalduntzea behin-betiko ezinezkoa bihurtuko luketen argudioak defendatu behar baitziren.

Argia aldizkariak egindako ikerketak erakutsi du CCOO sindikatuko kide batzuek ez dituztela soilik zuzenean kaltetutako langileak defendatu nahi izan; bost kasutan behintzat kalteturik egon gabe, oposizioetan inongo interes legitimorik ez zuten pertsonak deialdietan izen-ematera bultzatu zituzten oposizio horiek errekurritu ahal izateko. Jarrera honi buruzko hainbat ohar:

- Jarduera hau iruzur prozesal argia da. Epaitegiaren aurrean demandak abian jartzeko zilegitasuna mugatuta dago, interes legitimoa duten pertsonak edo erakundeek bakarrik izapidetu ditzakete. Iruzur prozesal bidez aritzeak debekatutako helburu juridiko bat bilatzen du.
- Jarduera honek oposizioetan parte-hartzen duten langileak kaltetzen ditu, ezin baitute lan finkorik lortu eta prozesu horiek etengabeko zalantza egoeran kokatzen dituelako. Kasu horretan, kaltetutako langileak hizkuntza eskakizunak egiaztatuta dituztenak dira.
- CCOO sindikatuak ez ditu soilik hizkuntza eskakizunak murrizteko eskaerak egin derrigortasun-indizea defendatzeko eta behin-behineko langile erdaldun elebkarrek lanpostu finkoa lor dezaten. Beren aldarrikapenetan derrigortasun-indizea murriztea eskatzen ari dira, administrazioaren funtzionamendua euskalduntzeko neurriak inpugnatu dituzte lan baldintzei eragiten ez dien kasuetan ere, behin-behineko langilerik ez dagoen lan poltsetan euskara-eskakizunak kentzea eskatu du, azpikontratazioan euskarari dagozkion hizkuntza klausulak debekatzea eskatu du...

Aurretik deskribatutako jarduera mota honek euskararen normalizazioaren aurkako kausa orokor bat erakusten du, eskuin muturreko Manos Limpias sasi-sindikatuak gure herrian eraman dituzten antzekoa. CCOO sindikatuaren esanetan, hitzez hitz "baliabide" (juridiko) "horien helburua ez da euskara zalantzan jartzea, baizik eta indarrean dagoen legeriatik at diseinatutako sarbide-edo egonkortze-prozesuek eskubideak urratzen dizkieten langileak babestea". Baina ikusi dugu hori baino askoz gehiago egin duela.

Argiaren ikerketak gauza gehiago ere erakutsi ditu: Demanda hauen oihartzun publikoa handiagoa izan zedin El Correoko kazetariekin harreman zuzena dagoela. Azken urteetako giro euskaraboa ezin baita ulertu komunikabide batzuek ematen dioten hauspo eta oihartzunik gabe.

Eta hau dena ez zen posible izango epaileen jardunik gabe. Epai hauetan, epaileek erabakitzen dute, herritarron eta erakundeen irizpidea bazterrerara utzita, zein diren gure beharrianak "errealitatean", zenbat langile elebidun diren beharrezko, langile horien euskarazko gaitasun maila, lanpostu jakinetan jarduteko beharrezkoa den euskarazko gaitasuna... edota euskararen beraren "zailtasun" maila ere. Ezjakintasunez blaitutako aurreiritziak eta ideologia jakinak agerian geratu dira. Estatuak epaileen jatorri soziologikoarekin arazo larri bat du, eta ez soilik Pedro Sanchezen aurka jarduten dutenean.

Apartheid edo bazterketa sindikala?

Argiaren ikerketa publiko egin ondoren AEK-k CCOOri neurriak hartzea eskatu zion Korrikan parte hartu ahal izateko. CCOO sindikatuak uko egin zion eta euren aurkako kanpaina salatu zuen, zuzenean apartheidia egiten ari zitzaizkiola salatu zuen.

CCOO sindikatuak bere aldarrikapenak egiteko zilegitasun osoa du eta langileek ematen dioten ordezkariaren arabera instituzioek eta alderdiek kontuan hartu behar dituzte. ELAk hori aldarrikatzen du bere buruarentzat eta hori eskatzen du CCOOrentzat ere.

Aurrekoa esanda, CCOO kritikatzeko ere erabat zilegia da. Bere jarrera euskarafoboa dela edo euskararen etsaia dela adieraztea kritika politikoa da. Beren jarrerak kritikatzeko mobilizazioak egitea ere erabat zilegia da, sindikatuok, CCOOk ere, gure eguneroko jardunean hori egiten dugu beste eragile eta instituzioekin.

Eta Euskal Herriaren erabateko euskalduntzea helburu duen ekimen batean parte-hartzeko helburuarekiko koherentzia eskatzea ere erabat zilegia da. Ez da bazterketa. Ez da apartheidia. ELAren iritziz, biktimismo horrek alderdi politikoen jarrera politikoa baldintzatzea du helburu, euskalgintza eta euskaltzaleak kriminalizatuz PSE-EEri beto eskubidea eskaini ahal izateko EAJrekiko harremanean eta EAJ eta EH-Bilduren artean lubaki bat eraiki dadin, administrazioen erabateko euskalduntzea ezinezkoa izan dadin.

CCOOren ahotan bazterketa sindikala eta apartheidia jasaten dutela entzutea iraingarria da. Euskal Herriko enpresa handi askotan ez dago lana lortzerik CCOO edo UGT sindikatuen kide izan gabe, bereziki Nafarroan. Hainbat enpresatan ELAko kideak jazarriak dira UGTren eta CCOOren monopolio sindikala blindatzeko (Mercadonan adibidez, norabide horretan hainbat epai izan dira). CCOO sindikatuak hainbat antolamendu soziolaboraletan ELAri bere ordezkariak ebasten dizkio, ELAk ez duelako organo horietan parte-hartzen. Berriki, CCOO sindikatuak UGTekin batera adostu du Elkarrizketa Sozialeko Mahaian parte-hartzea derrigorrezkoa izatea eta ELAren edo LABen jarrera sindikala zigortzeko neurriak inposatzea.

CCOO sindikatuak estatu mailan ukatu egiten dio ELAri gobernu eta instituzioekiko interlokuziorako aukera (Administrazio Publikoetako Mahai Orokorrean ELAk egoera juridikoki salatu behar izan du). Azkenik, CCOO sindikatuak eskatu izan du ELA nazioarteko sindikatu antolakundeetatik kanporatua izan dadila.

8. ETA ORAIN ZER?

Txosten honek argi erakusten du jurisprudentzia aldatu egin dela eta epaitegien interpretazio berri horrek sistematikoki eta modu orokorrean administrazioen euskalduntzean traba handiak ezartzen dituela. Ez du ELAk esaten, Auzitegi Konstituzionaleko epaile batek onartu du jurisprudentzia aldatu egin dela eta estatuko nazio zapalduetako hizkuntzen ofizialtasuna praktikan ezinezko bihurtzen duela (nazio zapalduen aipua ELArena da).

Ikusi dugu ere langile publikoen arazoaren muinean dagoen derrigortasun-indizearen interpretazioa aldatu egin dela. 2011n, EAeko Auzitegi Nagusiak euskalduntze progresiboan gutxieneko helburutzat jotzen zuen eta 2020tik aurrera gehieneko mugatzat.

Gainera hainbat epaitan zuzenean Espainiako Konstituzioaren interpretazio zurrunak eginez mu-
rritzatu direla hizkuntza eskakizunak.

Eta argi geratu da epai horiek probokatzeko asmo antolatu bat izan dela, zuzenean kaltetutako langilerik ez zegoenean ere VOX, UGT, CCOO edo CCOOko kide batzuek demandak eragin dituztela, eta horri guztiari hauspoa emateko prest ziren komunikabideak egon direla. Eta Nafarroan Merituen Dekretua UGTk eta Afapnak inpugnatu zutela ikusi dugu.

Status quo-a irauli

Epaitegiek egindako interpretazioek ez dute espaziorik uzten lege aldaketa txiki batzuen bidezko gure herriaren euskalduntze progresiborako. Euskarak eta euskaldunok beste estatus juridiko bat behar dugu ezinbestean, Auzitegi Konstituzionaleko epailearen hitzei erreparatuta, ofizialtasun osoa behar dugu eta euskara ezin da gaztelaniaren menpeko hizkuntza izan. Hori aldatu ezean, ikusi dugu ez dela posible izango gaztelaniaren nagusitasuna zalantzan jarriko dituzten neurriak hartzea, gaztelania baita Espainiako Konstituzioaren arabera derrigorrezkoa den hizkuntza bakarra.

Eta politikoki ezin da onartu PSE-EE edo CCOO/UGT bikotea izatea euskalduntze politikei mugak ezarriko dizkietenak. Ez da abertzaletasun kontua, berdintasun auzia baizik, euskaldunon hizkuntza eskubideak erdaldun elebakarren eskubideekin parekatzearen aurka daude, eta euskarak eta gaztelaniak pareko babes juridikoa izatearen aurka. Posizio politiko eta sindikal guztiek merezi dute errespetua, baina jarrera supremazistei ezin zaie beto eskubiderik eskaini. Oldarraldia indar harremanak sortzeko ariketa bat izaten ari da, epaitegiak egin daitekeenaren muga eskuin muturrera lerratzen ari dira eta ezin dugu marko hori ontzat eman.

Ezin dugu ere euskalgintzaren edo euskaltzaleon posizio politikoa kriminalizatzea onartu. Kriminalizazio horrek helburu politikoa du, PSE-EEekin akordioak legitimatzea, akordio horiek supremazismoan edo euskarafobian oinarrituak izan arren.

Administrazioei dagokionez, horiek modu progresiboan euskalduntzeko marko juridiko egokia behar dugu.

ELAren iritziz marko horrek hiru ezaugarri behar ditu:

- Euskararen eta gaztelaniaren esijentzia maila parekatzea.
- Parekatze horretarako epemuga argi bat izan dadila (2038 urtea).
- 12 urteko tarte horretan euskaraz ez dakiten administrazioako langile guztiei euskalduntzeko aukera, denbora eta baliabideak ematea.

Oldarraldi antolatuari esnatze antolatua

Oldarraldi antolatu honek erakusten dute beste behin gurea zapaldutako herria dela eta gure hizkuntza gaztelaniaren menpeko bigarren mailako hizkuntza gisa onartuko dutela bakarrik. Zapalkuntza honen kontzientzia hartzeak ekarri behar du bere desnormalizazioa eta euskalduntzearen aldeko atxikimendua berritzea eta antolatzea. Azken Korrikaren arrakasta hori ere izan da.

Esnatu ala hil? Esnatzea ere bada gure euskaltzaletasuna eta euskalduntzearen aldeko borroka berritzea. Gure aldetik sindikalismoan eragitea dagokigu. Hori da ELAk eskainiko duena.

